

## MONDRAGON UNIBERTSITATEAK eta Siemens-ek lankidetzahitzarmen bat sinatu dute gazteak eta irakasleak Industria Automatizazioan trebatzeko

2017/03/10

MONDRAGON UNIBERTSITATEko Goi Eskola Politeknikoak eta Siemens enpresak lankidetzan jarduteko esparru-hitzarmena sinatu dute gaur. Zehazki, bi erakundeentzat interesgarriak diren zientziaren eta teknologiaren alorretan jardungo dute lankidetzan, batez ere profesional gazteak Industria Automatizazioarekin lotutako gaitan trebatzeko. Esparru-hitzarmena gaur sinatu dute MONDRAGON UNIBERTSITATEKO Goi Eskola Politeknikoko koordinatzaile Carlos García, Siemens enpresako Iparraldeko eskualde-zuzendari Daniel Sainz de Charterinak eta Automatizazioaren alorreko finantza-zuzendari Christian Franzek.

Esparru-hitzarmena beste hitzarmen zehatzago batzuen bidez osatuko da geroago. Hasiera batean bi urterako sinatu da, eta beste bi urterako luzatu ahal izango da. Haren helburu nagusia Industria Automatizazioarekin lotutako jarduerak garatzea da, hala nola irakasleen prestakuntza, hezkuntza-dukien hornidura, araututako eta etengabeko prestakuntzako jarduerak eta bi enpresen arteko I+G+b zerbitzuak.

Hitzarmenak erantzuna ematen dio Unibertsitatearen honako estrategia honi: enpresekin lankidetzan, euskal industriaren beharrei erantzuna ematea, etorkizuneko industriaren aldaketei aurre egingo dieten profesionalak trebatuz; eta, aldi berean, hori egiteko, punta-puntako enpresen ezagutzaz elikatzea.



Hitzarmena gaur sinatu dute MONDRAGON UNIBERTSITATEKO Goi Eskola Politeknikoko Koordinatzaile Carlos García, eta Siemens enpresako Iparraldeko eskualde-zuzendari Daniel Sainz de Charterinak